AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

669

AGINDUA, 2013ko urtarrilaren 18koa, Segurtasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordean izango duen ordezkaria izendatzen duena.

Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 24. artikuluko 1. paragrafoan eta 16. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan ezarritakoaren babesean, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Eugenio Artetxe Palomar jauna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari izendatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzorderako.

Bigarrena.– Izendapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 18a.

Segurtasuneko sailburua,
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRONIZ.